



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

PRENTSA OHARRA

Batzar Nagusiek eskaarea egin deutsie Bilboko Udalari, Sabino Aranan eraitsitako bide-zubien azpian dagoan autobus geralekuaren markesina bat instalau daian

Bilbon, 2014ko martxoaren 21ean

Sabino Aranako bide-zubiak eraitsi eta gero, Autonomia kalean, Basurtuko noranzkoan, dagoan Bizkaibuseko geralekuaren erabiltzaileak babes barik geratu dira eguraldi txarra dagoanean. Hori dala eta, PP taldearen proposamenari jarraituz, Batzar nagusietako Herri Lan eta Garraioetako Sailak aho batez eskatu deutso gaur Bilboko Udalari, kale horretatik igaroten diran Bizkaibuseko lineetako erabiltzaileak babestuko dituan markesina bat instalau daian. Horrez gain, estaldutako beste geraleku bat be eskatu dabe Gurtubai kalean, Termibusetik EHU/UPV-ra urtetan daben zerbitzuetarako.

Hasiera batean, PP-ren arauz besteko proposamenaren helburua, babesleku bi horreek egiteaz Aldundia arduratzea zan, bana EAJ-PNV-ren Batzarretako taldeak aurkeztu dauen eta popularrek eta ganerako taldeek onartu dabentzuzenketaren ostean, prozesu hori egin behar dauena Udala dala erabagi da, ekipamendu horreen uri guztiko instalazioa “araupetuta” daukalako, “eredu bati jarraituz”.

EZ DAGO BARRIKUNTZARIK GALDAKAO-BASAURIKO METROA BIZKAIBUSEKO LINEAN

Batzordean, EH Bildu taldeak eskatuta, Itziar Garamendi Herri Lan eta Garraioetako diputatuaren agerraldi bi egon dira, talde horren eretxiz Galdakao eta Basauriko metroa lotzen dauen A3932 linean “aurreikusitako aldaketen” barri emoteko.

Garamendik behin baino gehiagotan guzurtau dau Bizkaibuseko linea horretako proiektuak aldatu diranik, eta linea hori “gaur egun, lizitzinaoan erabagi zan moduan dagoala egituratuta” esan dau. Halanda be, horrek ez dau esan gura proiektuetan agertzen diran linea “guztiak” ezin diranik ikutu, “aldaketak jaso daikiez, ibilpidea eta aldizkakotasunak aldatu egin leikez edo zerbitzua kendu, beharrezkoa eta interes publikorako komenigarria bada”, Bizkaibusen “ezer ez dalako mobiduezina”, azpimarratu dau.

Bere erantzunean, Aldundiko arduradunak esan dau “errespetau” egiten dituala Ibon Uribe Galdakaoko alkateak egindako adierazpenak. Alkateak, biztanleen artean herri kontsulta zabaltzeko apustua egin dau, metro zerbitzua udalerrira gerturatzeko lotura hoberenari buruzko proposamena Aldundiari bideratzeko, koalizino abertzaleak aurkeztu dauen eta batzordean ikusi ahal izan dan bideo batean ikusi ahal izan dan legez.

Garamendik adierazi dau Aldundia dala “gai horri buruzko erabagia hartu behar dauena”, eta horretarako, “justifikazino teknikoa” daukien “mobikortasun erespideak” hartuko dirala kontuan. A3239 linearen kasuan, diputatu andreak gogoratu dau bere helburua “zerbitzu



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

hoberena, praktikoena eta eraginkorrena” eskintza dala, “Galdakaoko biztanleei Bilboko Metrora gerturatzeko modua errazteko”.

“AZKUNA IZPIRITUAREN” PRESENTZIA

Saioaren hainbat unetan, Gonzalo Zorrila-Lequerica batzordeko presidenteak, zein Batzarretako taldeek Herri Lan eta Garraioetako batzordean dituen bozeroaleek, euren dolumina agertu dabe Iñaki Azkunaren heriotzarengaitik, eta euren alkartasuna erakutsi deutsie senideei, lagunei eta bere alderdiko kideei. Batzordekide batek gogoratu dauenez, “Azkuna izpirtiuak” Bizkaiko Batzar Nagusietan be egon gura izan dau, bertan “herritarren ongizatearen alde egiten dalako behar”, Azkunak egin eban moduan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

NOTA DE PRENSA

Las Juntas Generales instan al Ayuntamiento de Bilbao a instalar una marquesina de autobús en la parada existente bajo los demolidos viaductos de Sabino Arana

Bilbao, a 21 de marzo de 2014

El derribo de los viaductos de Sabino Arana ha provocado que los usuarios de Bizkaibus de la parada existente en la calle Autonomía -dirección Basurto- se queden sin protección ante las inclemencias del tiempo. Por ello, a propuesta del PP, la comisión de Obras Públicas y Transporte de las Juntas Generales ha pedido hoy por unanimidad al Ayuntamiento de Bilbao que “inicie los trámites” para instalar una marquesina que proteja a los usuarios de las líneas de Bizkaibus que transitan por esta calle, al tiempo que se solicita otra parada cubierta en la calle Gurtubay para los servicios que salen de Termibus a la EHU/UPV.

En un inicio, la proposición no de norma del PP pretendía que fuera la Diputación la que se encargase de la instalación de ambas protecciones, pero una enmienda presentada por el grupo juntero del PNV y aceptada por los populares y el resto de grupos de la Cámara vizcaína, ha precisado que quien debe iniciar este proceso es el ayuntamiento, ya que “tiene regulado” la instalación de estos equipamientos por toda la ciudad “según su modelo”.

SIN NOVEDADES EN LA LINEA DE BIZKAIBUS GALDAKAO-METRO BASAURI

En la comisión, se han sustanciado sendas comparecencias de la diputada de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, solicitadas por EH Bildu, en relación a las “modificaciones previstas”, según este grupo, en la línea A3932 que conecta Galdakao con el metro en Basauri.

Garamendi ha negado en varias ocasiones que se hayan modificado los proyectos de esta línea de Bizkaibus, que “está configurada, a día de hoy, tal y como ha salido a licitación”. Sin embargo, esto no impide que “todas” las líneas reflejadas en los proyectos puedan ser “modificadas, ampliadas en su recorrido y frecuencias, o suprimidas si así fuera preciso y conveniente al interés público”, porque en Bizkaibus “nada es inamovible”, ha advertido.

En su respuesta, la responsable foral ha dicho “respetar” las declaraciones efectuadas por el alcalde de Galdakao, Ibon Uribe, quien ha apostado por abrir una consulta popular entre los vecinos para trasladar una propuesta a la Diputación sobre la conexión más idónea para acercar el servicio de metro al municipio, tal y como ha quedado reflejado en un video presentado por la coalición abertzale y emitido en la misma comisión.

Garamendi ha señalado que es a la Diputación “a quien corresponde decidir sobre esta cuestión” y se hará bajo “criterios de movilidad” que tengan una “justificación técnica”. En el caso de la línea A3239, la diputada ha recordado que su objetivo es ofrecer “el mejor servicio, el más práctico y efectivo”, para “facilitar el acercamiento a Metro Bilbao de la ciudadanía de Galdakao”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

PRESENCIA DEL “ESPÍRITU AZKUNA”

En diferentes momentos de la sesión, tanto el presidente de la comisión, Gonzalo Zorrilla-Lequerica, como los portavoces de los grupos junteros en la comisión de Obras Públicas y Transporte, han mostrado sus condolencias por el fallecimiento de Iñaki Azkuna y se han solidarizado con familiares, amigos y compañeros de partido del alcalde de Bilbao. Como ha recordado un apoderado, el "espíritu Azkuna" ha querido estar presente también en el parlamento vizcaíno, lugar donde se trabaja, "como lo hizo él, por el bienestar de la ciudadanía".